



IDAZLEA: KARLOX BARRENTSORO
MARRAZKILARIA: AMHOA JAUREGI

ORO ITZENE



© Egilea: Karlo Barrentsoro
© Marrazkiak: Ainhoa Jauregi
© Edizioa: Lezoko Udala
Inprimaketa: Gupost S.A.U
Lege Gordailua:

LAGUNTZAILEA:



Lezoko Unibertsitateko Udala

ORO ITZENE

LEZOKO SORGINA



IDazlea: Karlo x Barrentsoro
marrazkilaria: Ainhoa Jauregi



ezon, bailarako gainerako herrietan bezala, ez dira inoiz sorginak falta izan. Kronika zaharrek diotenez, duela urte asko, Lezo Hondarribiko auzo ttipitto bat besterik ez zenean, ba omen zegoen Lezon sona handiko sorgin bat, Oroitzene zeritzana. Lezo ez zen gauza handirik, sei bat etxe plaza inguruan, arrantzale txabola batzuk portu aldean, eta Jaizkibeleko magaletan zabaltzen ziren baserri eta artzain bordak. Eraikuntza guzti hauen artean nagusitu egiten zen Lezo izeneko jauregitxoa, lezoar leinu zaharrenaren egoitza.

Jaizkibeleko magalean, Olatzartik gora, Oroitzene izeneko borda zaharrean bizi zen Lezoko sorgina. Gaxuxa izena zuen baina herriak Oroitzene etxeko izenaz deitzen zuen. Oroitzenek ondo ezagutzen zuen belaren indarra eta beraien bitartez sendatzen zituen bertako jendeen gaitzak. Bere konjuruek eragin handia zuten lezoar biztanleriarengan, eta asko eta asko joaten ziren berarengana eskaeraren bat eramanez. Baserritarrek euria eskatzen zioten lehorte gorrietan, artzainek larre onak artaldeentzat, arrantzaleek itsaso ona eta arrantza ugaria, neska gazteek senargaiaren faborea, atso eta agure zaharrek zahartzaro eroso, ... Lezon denok zeukaten beraren berri, eta denok errespetatu eta maitatu egiten zuten. Denok Lezo Zaharrekoek izan ezik, beldur baitziren agintaritza galtzeko.






Behin, Lezo Zaharreko Jaunaren etxean, mahai inguruan afaltzen ari zirela, gai horri buruzko elkarriketa mingotsa eta zitala piztu zen.

- Gauzak ari dira dagoeneko izugarri nahasten, eta denak daude sorgin horri begira. Ez dago inor herri honetan hari buruz hitz egiten ez duena –esan zuen Lezo osoan jurisdikzioa zuen etxeko kapilauak–
- Zer diozu On Mañuel –erantzun zion biziki kezkatuak Joanotek, Lezo Zaharreko Jaunak–. Berrirori sorgin horrekin bueltaka. Gauza asko iritsi dira nire belarrietara, eta egia esan, ez zaizkit deus ere gustatu. Badirudi bera dela herri honetako agintaria, eta ez ni. Edozein gauza dela Oroitzenerekin mintzatu behar, arazoren bat dagoela Oroitzeneri mintzatu behar, arazoren bat dagoela Oroitzeneri aholku eskatu behar,... Denetarako Oroitzene. Beti Oroitzene. Laster zergak niri ordaindu beharrean, Oroitzeneri ordaintzen hasiko zaizkio.
- Ez badira dagoeneko hasi aita –moztu zuen Anttoniok, Joanoten seme premuak, maiorazkoak–
- Egia da aita, sosa guztiak berari ematen dizkiote bere “faboreen” ordainetan, eta horrela jarraituz gero, ezer gutxi edukiko dute zuri ordaintzeko. Eta zuk berriz, urtero ordaindu behar diozu Hondarribiko kabiloari ohizko zerga. Eta ez baduzu zure patrikatik ordaintzen,... ez dakit nola bete ahal izango duzun urteroko zuloa –jarraitu zuen Pierrotek, Lezo Zaharreko jaunaren bigarren semeak–
- Eta ez hori bakarrik jauna –kapilauak berrirori– esan beharra dago lezoarren fedea galzorian dagoela, atso horrek bestelako sineskeriak erakusten baitizkie. Eta nik askotan nire buruari galdetzen diot ea Jesukristoren izen bera ez ote duten lezoarrek ahaztuko, beraien arimak infernuko gar gorietara betirako kondenatuz.
- Arras kezkarria diozuea –Lezo Zaharreko Jaunak–, bai fedearena, bai infernuko garrena eta bai lezoarren arimaren kondenatzearena,... baina benetan kezkatzen nauena zera da... nire zergak ezin kobratzearena. Bilau alenak denak!... ez ote didate ordainduko? Gauza izango al dira horrelako zitalkerian erortzeko?

- Noski baietz aita!, patrika behin husten da bakarrik, eta gero hor barruan ez dago deus gehiago, airerik ez bada. Oroitzeneri ematen badizkiote sosa guztiak, gero ezin izango dute zuretzat ezer ekarri. Garbi dago!
- Arraioa! Deabru txarrek jan bezate Jaizkibeleko sorgin hori! Nik emango dizkiot sosak atso lapur horri, nik emango diot merezi duena! Anttonio, Pierrot har itzazue lau gizon eta abiatu lehenbailehen sorgin horren txabola alderantz, eta ekar ezazue bizirik hona! Bizkor!



Baina Lezo Zaharreko Jaunaren agindua ez zen inoiz bete. Soldaduak Oroitzeneren bordara iritsi aurretik, honek bere txabola bideko baserritarren irrintziek oharturik, hanka egiteari ekin baitzion. Eta bordatik urrunegi ez zegoen muino bateko landaretza artea ezkutaturik, ikusi ahal izan zuen nola Joanoten soldaduek behin eta berriro miatzen zituzten alferrik borda eta inguruak. Gaua ere han igaro zuten sorginaren zain. Baina alferrik, Oroitzene ez baitzen gau hartan bere bizitokira hurbildu.

Etsiturik, jaunarengana abiatu behar izan zuten, Joanoten jauregirantz, beren porrotaren berri ematera. Lezo Zaharreko Jaunak gertatutakoaren berri izan zuenean, eta batez ere baserritarrek Oroitzene soldaduen hurbiltzeaz ohartzeko egindako irrintziak ihesaren arrazoia zirela jakitean, eroaren gisa ipini zen, amorruez eta ezinegenez gainezka.

Lezo Zaharretik atera eta jauzi batez jarri zen zaldi gainean, eta jarraitzeko agindua eman zion bere guardiari. Lasterketa azkar batez Oroitzeneko bidean jarri ziren. Orduan, ustekabean, Lezo Zaharreko Jaunak agindu ankerra eman zuen:

- Erre itzazue bideko borda eta baserriak, soroak eta zelaiak, iratzeak eta gariak. Den dena. Horrela jakin dezaten traidore hauek zein den Lezo Zaharreko Joanoten aginduaren aurka jartzearen ordaina. Erre, erre dena! Ez barkatu ezer, ez barkatu inor!



Alferrikakoak ziren bertako gizagaixoen garrasi eta erreguak, Joanotek ez baitzuen barkatzen. Zenbait gizonek aurre egin zieten beren ondasunak defendatzeko. Baina oraindik okerrago izan zen, Joanoten gerlarien geziek berehala akabatu baitzituzten. Horrela itzuli zen Lezo Zaharreko Jauna bere jauregira, bizkarrean sua eta heriotza utziz.

Igaro ziren urteak, hamalau hain zuzen ere, eta inor ez zuen deus gehiago jakin Oroitzenez. Batzuek ziotenez, Baztango lurraldeetara abiatua zen, beste batzuen esanetan berriz, zenbait marinel eta itsasgizonek ikusia omen zeukaten Lapurdiko portuetan. Baina ezer seguru ez, denak zurrumurruek baitziren.

Joanot, Lezo Zaharreko Jauna, laurogeita bost urteko aitona zen. Kaskazuria eta hankak arrastaka zeramatzan aitona. Baina, hala eta guztiz ere, bera zen oraindik etxeko jauna. Eta edozertarako, berari aditu eta obeditu behar zitzaion. Anttonio eta Pierrot, bere semeak, ez ziren garai bateko gazteak, baina zoritxarrez biak ezkongabe zeuden, eta Lezo Zaharrak ez zuen premu gazterik.

Joanotek ez zuen hil nahi bere segida ziurtaturik ikusi gabe, eta horregatik behin Donostiara joan zela aprobetxatuz, bertako aitoren seme aberats batekin hitz aspertua egin ondoren, erabaki eta agindu egin zuen bere bi semeak gizon argi horren alabekin ezkontzea.



Egun seinalatua iritsi zen. Lezon dena prest zegoen. Lezo zaharra eta herri osoa ikurrez horniturik zeukaten. Bat-batean, hodeiertzean, bi neskak zekartzan itsasontzia ikusi ahal izan zen. Une berean, Lezo Zahar aurreko lizar liraineko adaxka batean bele beltz ikaragarri handia pausatu zen kroak kroaka. Bere oihuak izugarriak ziren, eta laster, izuturik, jende asko bildu zen bere aurrean. Bat-batean bele beltza honela mintzo zen:

- Kroak, kroak, kroak,...

Aditu esan behar dudana. Oroitzene nauzue, Jaizkibeleko sorgina. 14 urte hauetan kanpoan egon arren ez dut inoiz ahaztu hemen, zorigaiztoko egun hartan gertatu zena. Kroak, kroak,... Ezta errudun zeintzuk izan ziren ere!

Joanot zaharra, gogoratzen al zara nitaz? –Lezo Zaharreko Jauna zorrozki begiratzuz– Traizioz eraso zenidan –jarraitu zuen– traizioz hil zenituen beren lurrak defendatzen zituzten baserritar gizagaixo haiek. Bederatzi dira zure kulpagatik egun triste hartan alargundu ziren emakumeak, eta hamasei aitarik gabe gelditu ziren haurrak.

Hamalau urte hauetan urruti bizi izan naiz, urruti, baina hurbil aldi berean, egunez egun, orduz ordu egon bainaiz mendekua laster beteko baita.



Kroak, kroak, kroak,...

Arrio eta belio

Erronkariko eta Baztango,

Lezo Zaharreko Jaunak
ez du inoiz segidarik izango!

Arrio eta belio

Jaizkibeleko eta Larrungo,

Lezo Zaharreko sehaskan
ez da inoiz haurrik egongo!

Hori aditurik, Joanotek, bere baitatik aterea, bere gizon baten aizkora harturik, beleari bota zion bularrean joaz. Belea lizarretik lurrera zerraldo erori zen, eta lurra ukitu bezain laster, lumaje beltza desagertuz joan zen, bere tokian adineko andre baten gorpua agertzeko.

- Oroitzene duk, Oroitzene duk!!! –errepikatzen zuten bertara hurbildu zirenek–

- Bera duk, Jaizkibeleko sorgina!!! –aditzen zen begira ari zirenen ahotsetatik–

Joanotek, Oroitzene handik kentzeko eta nonbait lurperatzeko agindua eman zuen, eta dena ahaztu nahiena, bere bi semeekin eta On Mañuel kapilau zaharrarekin batera, kaira abiatu zen, lehorreratzen ari ziren bi damei eta beren segizioari merezimenduzko ongietorri beroa emateko.

Egun hura festa handia izan zen Lezon. Nafarroatik etorritako ardo gorria gainezka ibili zen ontziz ontzi, eztarriz eztarri. Zezenak eta dantzariak ez ziren falta izan. Jai handia zen eta legezko ohorea egin behar zitzaion. Ondoren gaua, iluntasuna, festaren amaiera. Kaleak hustu ziren eta denak maindireen goxotasunera erretiratu ziren. Lezo zaharrean gauza bera gertatu zen. Lehendabiziko aldiz, senar-emazteak oheratu ziren elkarrekin. Joanot poz-pozik zegoen, laster edukiko baitzuen bere leinuak eskatzen zion segida. Hala ere, Oroitzeneren hitzak behin eta berriro entzuten zituen.

Arrio eta belio

Erronkariko eta Baztango,

Lezo Zaharreko Jaunak

ez du inoiz segidarik izango!

Txorakeriak! –esan zuen bere barrurako– Sorgin horrek ezin du ezer egin, eta lurpean dagoenez are gutxiago! Atso alena, azkenean iritsi zaizu ordua! –amets eta ardoaren nekearen artean loak hartu zuen–.







Lo zerraldo gau hartan Joanotek egin zuena, lo sakona, lo astuna maindireen artean laja zuena. Goizalde zen, oilarrak bere lehen kukurrukua kantatu zuen eta eguzkiaren izpi goiztiarrenak leihotik sartzen hasita zeuden, Bat-batean emakume-garrasi lehor batek goizaldearen bakea urratu zuen. Joanot ez zen ohetik oraindik jaiki aurrekoaren antzeko beste garrasia entzun zuenean. Bere errainak ziren. Haien geletara hurbildu zenerako, bazeuden han etxeko hainbat mirabe. Denak ikaraturik, negar zotinka, ikusten zutena ezin sinetsiz.

Anttonio eta Pierroten oheak arras odoldurik zeuden, maindire zuriak odolez gorriturik. Eta gainean, semeen gorpuak, lepoa mozturik. Hura ikaragarria zen. Alargunak eroturik zebiltzan, aieneka batetik bestera, negarrari ezin eutsiz. Odol putzu bietatik odolezko bidexka bat abiatzen zela ikusirik, Joanot eta etxeko zenbait mirabek jarraitu zuten, eta kanpora ateratzen zela konturatu ziren. Kanpoan, atari aurreko lizarrean, bele beltzak bere madarikazioa bota zuen adaxka berean zeuden Anttonio eta Pierroten buruak, zintzilik, ile adatsetatik lotuta.

Aho zabalik, odola zainetan hozturik, gelditu ziren denak hura ikusterakoan. Eta Lezon zenbait agurek oraindik kontatzen dutenez, bele beltza gelditu zen berriro adaxka hartan, bi buruen artean, bere leloa errepikatuz:

Kroak, kroak, kroak,...

Arrio eta belio

Erronkariko eta Baztango,

Lezo Zaharreko Jaunak

ez du inoiz segidarik izango!

Arrio eta belio

Jaizkibeleko eta Larrungo,

Lezo Zaharreko sehaskan

ez da inoiz haurrik egongo!



Hemen, lerro hauetan kontatu dugunetik hiru urte eskas ez ziren igaro, Joanot, Lezo Zaharreko jauna hil zenerako. Diotenez, ordutik eroturik, burua galdurik, ibili zen alde batetik bestera bi semeei deika. Anttonio, Pierrot...! Anttonio, Pierrot...! Inork ez zion erantzuten, haizearen txistuak eta otsoen uluek salbu. Behin, gabon zahar gauean aurkitu omen zuten etxe aurreko lizarraren aurrean, hormaturik, izozturik, begirada galdua elur arteko zuhaitz alderantz zuzendurik. Eta kontatzen denez, Joanoten gorpua aurkitu zutenek berriro ikusi ahal izan zuten bele beltza ohizko adaxkan, bere betiko leloa lau haizetara kantatzen:

Kroak, kroak, kroak,...

Arrio eta belio

Erronkariko eta Baztango,

Lezo Zaharreko Jaunak

ez du inoiz segidarik izango!

Arrio eta belio

Jaizkibeleko eta Larrungo,

Lezo Zaharreko sehaskan

ez da inoiz haurrik egongo!



